

«Prestatuta gaude esanak ondo egiten baditugu»

AITZIBER ALZAGA
FAMILI MEDIKUA

Famili mediku tolosarrak azaldu duenez, gizartearen esku dago koronabirusari aurre egitea, «osasun sistemaren saturazioa ekidin nahi badugu» // **6**

Beharra dutenei laguntzeko boluntario sarea ugaritzen ari da

Gizarte Zerbitzuak martxan jarri dira, batez ere, adinekoei laguntzeko, eta boluntario ugarik prestutasuna azaldu dute laguntzeko // **7**



Villabonako Kale Nagusia, hutsik, atzo eguerdian. JON MIRANDA

Ezarritako neurriak aintzat hartzen ari dira eskualdeko herritarrek

Osasun arloan «errespetuz eta kontzientzia handiarekin» ari dela erantzuten jendea diote langileek; enpresa batzuk ateak itxi dituzten bitartean, besteek produkzioa mugatu dute // **3-5**



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA

2 ETA 3 LOGELA , GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK



CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.

Informazio guztia:

KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo

607 445 484

943 69 02 97

Informazio jario etengabea

Ezohiko informazioa jasotzen ari dira herritarrak, ostegunaz geroztik. Aholku izan direnak, debeku dira atzotik, eta aditu zein agintariak lasaitasun mezuak helarazten ari dira, zailtasunak nagusitzen badira ere.

Erredakzioa

Araba, Bizkai eta Gipuzkoan Osasun larrialdia ezarri zuen Iñigo Urkullu lehendakariak lehenik, eta Pedro Sanchez Espainiako presidentek Espainiako Estatua alarma egoeran dagoela esan zuen ordu gutxira. Ezohiko egoera. Agintariak beraz, hainbat neurri ezarri dituzte asteburuan; atzo bitarte betetzeko aholkua zegoen indarrean, atzotik, berriz, betebeharreko neurriak dira, eta betetzen ez badira isunak jarriko dituzte. Neurri horiek guztiak 15 egunez egongo dira indarrean, eta koronabirusaren zabalkundearen arabera, luzatu dezakete epea.

Pedro Sanchezek iragarritako alarma egoeraren ondorioz, autonomia bertan behera geratu dira. Urkulluk agindua beteko duela esan du, nahiz eta ez gusatu. Eta neurriak ez dira nolana hikoak: herritarren konfinamendua agindu dute, hau da, lanera joateko, erosketak egitera joateko edota behar-beharrezkoa den hori egitera atera daiteke kalera, bestela etxean egon behar da, eta ateraz gero, bakaraka egin behar da eta beste herritarrekiko metro eta erdiko gutxieneko tartea utziz.

Ez da alde bakarrez hartutako erabakia, Espainiako Gobernuaren Ministro Kontseiluak errege dekretua onartu zuen larunbatean, eta horren arabera, baldintza jakin batzuetan bakarrik ibili ahal da kalean.

Eskualdean noski, nabaria izan dira debekuak. Larunbat goizean oraindik, ez ziren neurri zorrotzenak indarrean jarri, eta erosketak egiten edota tabernetan jendea pilatu zen. Hori bai, urduritasuna zen nagusi, eta neurri zorrotzagoak etorriko zirenaren ustea zegoen zabalduta. Taberna gehienak ordea, larunbat arratsalderako itxi zituzten, hau da, Espainiako presidentearen prentsaurrekoaren ondotik.

Herriz herriko erabakiak hasiak ziren ordurako, dena den. Larunbat goizerako zentzuz ibiltzeko gomendioa zen nagusi, eta udalek eta eragileek antolatutako ekitaldi guztiak bertan behera zeuden ordurako. Tolosan azoka



Tolosan jasotako irudia, larunbatean, koronabirusaren inguruko neurriak direla eta. I.G.L.

bera ere bertan behera uztea erabaki zuen Tolosako Udalak, eta horrek hainbat baserritarren haserrea ere piztu du. Askok base-rietan bertan saldu zituzten produktuak, eta supermerkatu handiek irekita egoteko baimena zutenek, bertan jende asko pilatuz, ez zuten ulertzen zergatik euren ezin zuten leku ireki batean aritu.

Larunbat arratsalderako ordea, kaleak nabarmen hustu ziren, eta herrietako jolaslekuak eta horrelakoak itxi. Espainiako Gobernuak ezarritako alarma egoerak herritarrak etxean konfinatzera behartu ditu. Igandean oraindik, aholkua zen, eta Ertzaintza ibili zen jendea etxera joateko eskatuz. Eskatuz. Izan ere, atzotik ez dute eskatzen, agindu egiten dute, eta konfinamendua bete nahi ez duten herritarrek isuna jasoko dute; 100 eurotik hasi, eta 600.000 euro bitartekoak.

NEURRI ZEHATZAK

Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren erabakiak, herritarren mugikotasuna mugatu du. Atzotik, behar-beharrezkoa dena egitera atera daite-

ke kalera, eta ateraz gero, metro eta erdiko distantzia mantendu behar da.

Asteburuan nabaritu da herritar asko etxean geratu direla eta errepideak ia hutsik egon dira, baina horren inguruan ere eman dute azalpenik: errepideetako mugimenduak mugatuak daude eta autoa, ahal dela, ez da hartu behar. Horrek eragozpen asko sortuko dizkie lanera joan behar dutenei, bereziki garraiobideren bat behar dutenei; garraio publikoa asko murriztu dute, ahal dela ez hartzeko eskatu dute, eta autoaren erabilera ere mugatu dute. Euskadiko Garraioaren Agintaritzak murrizketak onartu ditu: %40 eta %60 artean gutxituko dituzte, eta bidaiarekin segurtasuna bermatzeko tokien herenak bakarrik erabili ahal izango dira.

Aisialdirako ezin da etxetik atera, beraz, eta mugimendu guztiak mugatu dituzte. Zortzi egoera zehatzetan atera daiteke etxetik: janari, botika edo bestelako lehengai bat erosteko; osasun zentroetara joateko; lanera joateko; ohiko bizilekura itzultzeko; mendeko bat zaintzera joateko; finantza erakundeetara

joateko; beharrezko egoera batean egonez gero; eta bestelako egoera arrazoituen bat badago. Gurtza egitera joateko tokiak ere –elizak, esaterako– itxi dituzte.

Neurriak ikusita Tolosaldeko udaletan ere hasi dira erabakiak hartzen. Bat baino gehiagotan sortu dute prebentzio mahaia eta informazioa helarazten ari dira. Udal bulegoak herritarrei itxita egongo dira eta herritarrei eskatzen diete harreman telematikoak edota telefono bidezkoak lehenesteko.

Tolosako Udalak eskaera horrekin batera esan du soilik premiazko edota larrialdi egoeran eta beste irtenbiderik ez denean artatuko dutela jendea aurrez aurre, aurretiazko zita emanda. Tolosako administrazio-epeak etenda geratzen direla ere jakinarazi du.

ZEIN SALTOKI DAGO IREKITA?

Kultur ekitaldi guztiak, modu irekian egiten direnak behintzat, bertan behera geratu dira. Eskualdean bertan herri guztietako ekitaldiak atzeratu edo utzi dituzte bertan behera. Museoak, kiroldegia, erakusketa gelak eta liburutegiak ere itxita daude.

Hau da, udal eraikin eta aretoak itxi dituzte eta haurren edo helduen jolas zein ariketa lekuak ere prezintatu dituzte.

Pribatuak diren eremuak dagoeneko, jolas edo apustu etxeek ez dute zabaltzeko baimenik, eta ezta tabernek, jatetxeek, kafetegiek edota terrazek ere.

Eta zer dagoen irekita? Taberna eta horrelakoak itxita daude, baina produktuak etxera bidaltzeko zerbitzua badute, barruan, publikorik gabe egon ahal izango dira lanean. Jatekoa erosteko dendak ere zabalik egoteko aukera dute; harategiak, arrandegiak, okindegiak, fruta-dendek... irekitzeko baimena dute. Baita farmaziek, gasolindegiek, estancoek eta egunkariak saltzen dituztenek ere. Informatika dendek ere ireki ahal dute, eta baita paper-dendek edo maskotak dituztenak ere.

GORA

Aipatutako neurri guztiak helburu bakarra dute: COVID-19 birusaren hedapena gelditzea. Izan ere, kutsatuen zenbatekoak gora egiten jarraitzen du. Administrazioek eguneratu egin dituzte koronabirusarekin kutsatutakoen eta hildakoen kopuruak. Lurralde guztietan handitu da gaixo kopurua, baina Nafarroan, Araban eta Bizkaian, bereziki. Atzo Araban 444 lagun zeuden kutsatuta –herenegun baino 35 gehiago–; Bizkaian, 194 –36 gehiago–; eta Gipuzkoan 89 –26 gehiago–. Ipar Euskal Herrian sei pertsonak zuten atzo, gaitza.

HAUTESKUNDEAK

Eusko Legebiltzarrerako datoren apirilaren 5eko hauteskundeak atzeratzea adostu dute Iñigo Urkullu Jaurlaritzako lehendakariak eta bozetara aurkeztutako hautagaitza nagusien ordezkariak.

EAJ, EH Bildu, EP, PSE, PP eta Equo alderdietako ordezkariak bildu da Urkullu. Ohar bateratua atera dute. Lehendakariaren dekretu baten bidez, indargabetuta geratuko da apirilaren 5eko hauteskundearen deialdia, eta adostu dute EAEko osasun larrialdia amaitutzat eman ondoren egingo direla.

Atzeratu egin dituzte kontsultak ospitale eta anbulatorioetan

Ohiko kontsultak, espezialistenak eta programatutako ebakuntzak bertan behera utzi ditu Osakidetza, «koronabirusaren kutsatzea gutxitzeko»; Urgentziak beti bezala artatuko dira

Jon Miranda

Atzotik herritarrek ezin dute anbulatorio eta ospitaletara mediku kontsulta pasatzera joan. Aurrez aurreko hitzorduak bertan behera uztea adostu zuten igandean Osakidetza eta Onkologikoak, eta honenbestez, datozen egunetan medikuarekin hitzordua zutenek zain egon beharko dute. Osasun saileko arduradunek jakinarazi dutenez telefonoz hots egingo diete egoera ebaluatu eta soilik beharrezkoa bada, osasun zentroan aurrez aurreko kontsulta bat hitzartzeko.

Gipuzkoako ESIak zabaldu du albistea eta neurri hauek ospitale-tako espezialitateetako kontsultei ere eragingo die. Asuncion klinikan ere, bertan behera geratu da eguneko jarduera kirurgikoa eta baita aurrez programatutakoa ere. Gaixoa arrisku bizian dagoenean baino ez dira egingo ebakuntzak eta salbuespena izango dira, baita ere, gaixo onkologikoak. Osakidetza jakinarazi duenez, Onkologia sailean tratamendua jasotzen duten gaixoen kontsultak ez dira etengo eta aurrez programatutako saioekin jarraituko dute.

JENDE PILAKETA EKIDITEKO

Osakidetza koronabirusaren kutsatzea gutxitzeko helburuarekin hartu ditu neurriok. Aurrez programatutako mediku probak, oraingoz, bertan behera geratuko dira eta soilik larritasunagatik beharrezkoak diren odol ateratzek onartuko dira, baita programatutako sendatzeak ere.

Osasun sistema osoa berregituratzen ari da Eusko Jaurlaritzaren Osasun saila, koronabirusarekin kutsatutako gaixoak artatzeko, baina aldi berean gainerakoak artatu gabe ez uzteko. Asmo horrekin jarri dute martxan kontingentzia plana Villabonako Erniobea osasun zentroan. Irura, Anoeta eta Aiztondoko herriei zerbitzua eskaintzen dien anbulatorioa da eta Pablo Daza medikua unitate burua da bertan: «Errespetuz eta kontzientzia handiarekin erantzun du jendeak eta oso eskertuta



Osasun arduradunek gomendatutakoari jarraituz, jende gutxi gerturatu zen atzo Villabonako osasun zentrori. J.M.



«Gure bezeroei esaten diegu ez dela sendagaien hornikuntzarik faltako»

JUANA MARI SANCHEZ
FARMAZILARIA

J.M. Amasa-Villabona

Villabonako Kale Berrian kokatuta dagoen farmaziako arduraduna da. Osasun krisiak irauten duen bitartean zabalik izango dute, 09:00etatik 22:00ak arte.

Jende asko gerturatu al zaizue egun hauetan?

Bai, eta asko gainera larrituta gerturatu zaizkigu. Koronabirusaren gaia txantxetan hartetik kezka hartzera pasa gara. Gure lana jendea lasaitzea, da neurri handi batean.

Zer eskatzen du jendeak farmaziara etorrira?

Ahal duten guztia eskatzen dute, antsietate apur batekin. Guk esana diegu bezeroei ez dela sendagaien hornikuntza faltako. Hala ere, eskaeran gehikuntza egonenez, parasetamol mota batzuk falta dira, aurreikuspen guztiak hautsi baitira azkeneko orduetan. **Beste ezer falta zaizue orain farmazietan?**

Bai. Hilabete hasieratik falta dira higiene produktuak: eskularruak, maskarak eta gel hidrogenikoak. Orain gobernuak atxikita dauzka maskarak, baina aurreko asteetan guk eskatu eta ez zitzaizkigun iristen. Ez dakit zein den arazoa.

Gel hidrogenikoak zeuek egiteko aukera izan duzue?

Saiatu gara, baina formula egiteko osagaiak dagoeneko faltan di-

tugu. Orain ospitaletan beharrezkoa izan daitekeen materiala konfiskatzen ari da gobernuak, hortaz, aukera hori gabe geratu gara. Ezin ditzakegu osagai horiek saldu ere egin.

Noizko izango dituzue produktuk horiek?

Ez dakigu esaten. Jendeari tarte galdetzeko eskatu diogu, eta bien bitartean, eskuragarri duten horrekin moldatzeko. Eskuak ura eta xaboiarekin maiz-maiz garbitzeko esaten diegu.

Neurri berezirik hartu al duzue lanerako?

Bai, joan den igandean geroztik manpara batzuk jarri ditugu mostroarean gure buruak babesteko. Gutako bat gaixotzen bada ezingo genuke arreta jarraitua eskaini eta egoera hori emango bultzatzea. Aukera izango genukeela, berriro ere, aurreko ordutegira itzultzeko.

Gomendiorik ba al duzue?

Kontu handiarekin ibili dadila jendea. Ahal dela ez dezatela esku dirua erabili eta distantziak gorde ditzatela.

gaude. Egoera zaila izan arren eta norberak bere minak dituen arren, Villabonako osasun zentroan lasaitasuna da nagusi».

Egoerari aurre egiteko gune bat egokitu dute Villabonako osasun zentroko beheko solairuan, «kalentura edo arnas aparatuan arazoak dituztenentzat». Era horretan, anbulatorioko beste zonaldeetatik aparte geratzen dira bertan egoten diren gaixoak. «Hala ere, koronabirusaren sintomak dituenak 900 20 30 50 telefonora hots egin beharko du eta guk profesionalok erabakiko dugu zein den jarduteko modu egokiena. Etxean gelditu edo hona etorri behar ote duten jakinaraziko zaie», esan du Dazak. Aitortu du herritarren eskura jarritako linea okupatuta egoten dela askotan eta horrelakoetan anbulatorioko telefono zenbakira deitzeko aholkatu die herritarrei. «Hemen kasu egingo diegu».

Villabonako osasun zentroko lehen solairuan familia medikuek lanean jarraitzen dute eta bigarren solairuan baita pediatrek ere. «Ohiko gaixotasunen jarraipena egiteko aurrez aurreko kontsultak bertan behera utzi ditugu eta ahal den neurrian mediku bakoitza saiaturiko da telefonoz argibideak ematen», aipatu du unitate buruak. Baina momentuko arreta behar duten gainerako gaixotasunak artatuko dituzte anbulatorioan, orain arte bezala, Dazaren esanetan, «urgentziazkoak» direnak.

Herritarren jarrera eredugarriarekin batera, bere lankideena ere aipatu du Villabonako osasun zentroko arduradunak: «Oporrak hartzekotan ziren lankide asko jai egunik gabe geratu da eta zaintza lanetarako murrizketa hartua zuten osasun langile asko lanean ari da egunotan. Oso erantzun ona eman dute osasun langileek».

Gainerakoan, ohiko gomendioak eman ditu Dazak: «Eskuak maiz garbitzea, eztula eta doministiku egitean ukondoa erabiltzea, osasun arreta zuhurtziaz eskatzea, premiazkoa ez bada bidaiarik ez egitea... Horiek dira prebentzio neurri nagusiak koronabirusari aurre egiteko».

Enpresa bakoitzak bere neurriak hartu ditu egoerari aurre egiteko

Batzuk ateak itxi dituzte, besteek produkzioa mugatu dute eta badira berdin-berdin jarraitzeko ahaleginetan ari diren enpresak ere; betiere arduraz hartu dituzte neurriak

Eneritz Maiz / Irati Saizar

Espainiako Gobernuak ezarritako konfinatzeko aginduak badi-tu hainbat salbuespen: horietako bat da lanera joateko kalera ir-tetearena. Enpresaburuen deirik jaso ezean, lanera joan beharko dute langileek, momentuz behintzat. Atzo ere milaka izan ziren lantokietara joan ziren lan-gileak eskualdean. Eta beste hainbestek etxea bilakatu dute lantoki, bulegoko lana etxetik egiten ari baitira.

Jardunaldi ekonomikoa ahal den neurrian mantentzeko erabakia dagoen arren, hainbat enpresek ateak itxi egin dituzte, langileen osasuna bermatzeko aukerarik ez dutela ikusita. Horren adibide da Adunako Irizar e-mobility enpresa. Bihar arte lantegia itxita mantenduko dute eta ondoren erabaki beharko dute aurrerantzean zein neurri hartu.

Gutziz itxi ez, baina mugatu egin dute produkzioa, esaterako, Panelfisan. 120 bat pertsonak egiten dute lan bertan, eta egoeraren aurrean neurriak hartu behar izan dituzte. Pasa den aste-tik, etxetik lan egin dezaketenak etxetik ari dira lanean. Besteen kasuan, atzotik, produkzioa erdira jaitsi dute, horrela, langile erdiak lanera joango dira eta beste erdiak etxean geratzeko aukera izango dute. «Bezeroen alde-tik ez da ezer aldatu, baina ur-gentziak bakarrik erantzungo ditugu, eta produkzioa erdira jai-



Eskualdeko enpresa batzuk martxan jarraitzen dute. Irudian, Apatia industrialekua, atzo eguerdian. E. MAIZ

tsita ariko gara lanean», azaldu dute. Egunero joango dira egoera baloratzen eta beharrezko neurriak hartzen.

PRODUKZIOA MANTENDUZ

Beste hainbat enpresatan beharrezko neurriak hartzen ari dira, nahiz eta produkzioa mantentzeko ahaleginetan jardun. Munksjo Paper enpresa da horren adibide bat. 170 langile inguruko enpresa da eta bereziki bulegoko lanetan izan du eragin gehien. Azaldu dutenez, ahal du-

tenak etxetik ari dira lan egiten, ordenagailu bidez: «Enpresan ditugun bulego gehienak bi pertsonentzako dira eta saiatu gara bulego bakoitzean pertsona bakarra mantentzen eta besteak etxetik lan egiten». Egin behar-reko bilerak *skype* bidez egiten ari dira. Tailerrean, ordea, «normaltasuna da nagusi». Makina bate-tik besterako espazioa zabala dela diote, eta postu bakoitzean langile bakarra aritzen dela, mantendu behar-reko distantzia errespetatuz.

Voith Paper enpresan normaltasunaren barruan lan egiten saiatzen ari dira, prebentzio neurriak hartuta. Langileen arteko distantzia eta eskuen garbiket-tan jarri dute arreta, eta, esatera-ko, jangela itxi egin dute. Gainera-koan, etxetik lan egiteko modua dutenak etxetik ari dira lanean. Aste honetan horrela lan egingo dute, eta hurrengo aste-rako hartu behar-reko neurriak baloratzen jarraituko dutela adierazi dute.

Beste adibide bat da Irurako

Aztaka 4x4 tailerra. Bost langile-ko enpresa da eta hasteko, lan or-dutegia aldatu egin dute etxera-ko joan-etorriak ekiditeko. «La-naldi jarraia egingo dugu, 15:00ak bitarte». Konpondu be-harreko autoak pasa den astetik zitu-tzen edota ekarri egin dizkie-te. «Guztia desinfektatzen ari gara. Paketeak kanpoan utzaraz-ten ditugu, eta bezeroek ere ezin dute barrura sartu». Alkohola erosteko asmotan farmazian izan direla kontatu du, baina esku hutsik bueltatu dira.

DUDA ETA KEZKAK

Zer egin, nola jokatu. Hamaika zalentza sortu ditu enpresarien artean egungo egoerak. Eta za-lantza horiek argitzeko jo dute askok gestoretara, aholku eske. Halaxe azaldu dute Tolosako Ar-gitu, Miner eta Bordonabe ahol-kularitzetako langileek.

Deiei erantzuten pasa zuten atzoko eguna Argitukoek, «ero-tuta». Esan zuten, gehienbat autonomoak direnen kezka argitu behar izan zituzten, berezi-ki, langileak dituzten autonomo-enak. Bordonabe aholkularitza-koek enpresa mota guztietako deiak erantzun zituzten egune-an zehar, eta orokorra zen kezka: «Enpresek ez dakite zer egin, ez dakite egoera nola kudeatu». Langileekin zer egin ez zekitela, kezkatuta jo zuten enpresari as-kok laguntza eske. «Guk aukera posibleak mahai gainean jarri dizkiegu, eta gero enpresa bakoit-zarena da azken hitza».

Mozorpo hoberearen bila

Bozkatu hemen

Suite Baztan saria:
Bi pertsonarentzako gau bateko egonaldia:
Jakuzzidun logela eta gosariekin
Zigako Aldekoa Landetxearen eskutik
948 45 26 06 • www.aldekoa.es
Epaimahaiaren sari nagusia

Lau pertsonarentzako otordu bat
Zabala sagardotegian
Goiburu auzoa, Aduna
943 69 07 74 • rzabala.com
ataria.eus-eko
erabiltzaileen saria

Bi lagunentzako bi afari
Lurlan Bistrot dendan.
Plaza Berria 2, Tolosa
943 24 33 39 • lurlanbistrot.eus
Atarikideen saria

Hezkuntza beste modu batera

Eskola jarduera presentzialak bertan behera geratzearen egoerari egokitzen ari dira ikastetxeak

Imanol Garcia Landa

Aurreko ostiraletik hasita bertan behera geratu dira eskola jarduerak presentzialak. Hartutako neurriaren arabera martxoaren 30ean itzuliko dira ikasleak ikastetxeetara, baina epea luzatu daitekeela aurreikusten da. Ikastetxeak egoera berrira egokitu behar izan dute, eta nagusienak Interneteko plataforma bidez ari dira ikasgaiak lantzeko moduak bideratzen.

Villabonan dagoen Erniobera institutuan aurreko ostiralean hasi ziren antolatzen maila bakoitzeko ordutegi berezia. Interneteko plataformen bitartez ari dira egitekoak bidaltzen ikasleei zein hauengandik jasotzen. Egoera berrira egokitzea tokatzen zaiela azaldu du Joxemi Eizagirre ikasketa buruak: «Irakasle batzuk gehiago ezagutzen dituzte gai hauek eta besteak eman diz-



Irakasleak euren artean prestakuntza ematen Erniobera institutuan. ATARIA

kie prestakuntzak, besteak beste bideoak grabatzeko eta ikasleengana Internet bidez zuzentzeko».

Zuzendaritzako kideak zein zenbait irakasle joan ziren atzokoan Erniobera institutura, baina gaurtik aurrera beraien zereginak etxetik bideratuko dituztela esan du Eizagirrek. «Ikasleei komeni zaie errutina bat eramatea egunero», esan du Eizagirrek. «Denok ariko gara etxetik lana egiten, eta ziur gaude ikasleek erantzun positiboa izango dutela».

Orixen institutuko Itzar Errasti ikasketa buruak azaldu duenez, «ikastetxea irekita dago, eta ira-

kasle dezente etorri da bertara. Bihartik [gaurtik] aurrera irakasle gehienak etxetik ariko dira, eta zuzendaritzako kideak txandaka izango gara ikastetxean». Gurasoei eta ikasleei bidali dizkiete egin beharreko lanak, eta Internet bidez ariko dira harremanetan: «Familien aldetik ez da kezka handirik azaldu». Zenbait familietan ez dituzte baliabideak Internetera beharrezkoa den konexioa izateko, eta familia horietako ikasleei paper bidez banatu zaizkie egitekoak.

DBH eta Batxilergoko ikasketak ematen dira Orixen. «Bizitzaren ari garen erronka honek ere balio du beste gaitasun batzuk



Orixen institutuan, irakasle bat egitekoak zehazten ikasleei. ATARIA

lantzeko, autonomia adibidez», esan du Errastik. «Orixen digitalizazioan maila nahiko aurreratu daukagu, baina honek guztiak ere balioko du auden hutsuneak ikusteko eta pauso bat gehiago emateko».

Ibarrako Uzturpe Ikastolan 2 eta 16 urte bitarteko ikasleak dituzte, beraz, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHkoak. «Haur Hezkuntzari dagokionez, etxean egoteko aholkuak ematen ari gara, eta gure blogaren bitartez ere proposamenak egiten ari gara», esan du Usue Sukia zuzendariak. «Lehen Hezkuntzan lanak zehaztu dizkiegu eta horien jarraipena egiteko bi-

deak aztertzen ari gara, bakarkako jarraipena ahalbideratuz. DBHkoei dagokionez, gaur [atzo] lehen orduan 150 ikasle aritu dira bideokonferentziaz, talde bakoitza bere tutorearekin, eguneko plangintza zehaztuz. Egitekoak azalduko dira eta gero lanak jasoko ditugu».

Uzturpeko irakasleak etxetik ariko dira, eta zuzendaritzako eta administrazioako kide bat izango da goizeko ordutegian ikastetxean. Familiekin harremanetan daude korreo elektronikoz edo telefonoz, eta «eguneroan aritzeko laguntzaren bat behar badute, bideak irekita» dituztela azaldu du Sukiak.

Emaitzarik gabeko asteburua

Kirolaren alorrari ere eragin dio jarduerak bertan behera geratzeko debekuak

I. Garcia Landa

Koronabirusen larrialdi egoeraren barruan, kirol jarduerak guztiak bertan behera geratu dira. Asteburuan ez dira, beraz, hainbat ligako partidak zein txapelketa jokatu, ezta eskualdean egitekoak ziren kirol ekitaldiak.

Tolosa CF klubak da eskualdeko handiena, 750 kide inguru baititu kirolari eta teknikari artean, eskola kirola kontuan hartuta, bere hainbat ataletan. «Ostegunean jaso genuen abisua kirol az-

piegiturak itxi egingo zirela», esan du Iñaki Martixa Tolosa CF-ko lehendakariak. «Egun horretan, esaterako, futbol taldekoek entrenamenduak bertan behera utzi zituzten». Entrenamenduak egiteko hainbat jarraibide pasa dizkiete entrenatzaileek kirolari, tartean luzaketak egitea, eta bizikleta estatikoa dutenek horrelakoak erabiltzea. «Ariketa egiteaz gain, frigorifikora ahal den gutxien joatea ere komeni da», azaldu du Martixak. «Seme-alaba kirolariak dituzten gurasoek ere aprobetxatu ditzakegu berarekin ariketak egiteko».

Atal bakoitzak bere egitura autonomoa du klubaren barruan. «Azkenean, ikusita azpiegiturak itxita daudela, bakoitza joan da bideratzen gaia», zehaztu du Martixak. Lehiaketei dagokio-

nez, ligak jokatzen dituzten kiroletan zer gertatuko den ez dagoela garbi gaineratu du: «Posible da aurtengo ligak bukatutzat ematea. Hori gertatzen bada, ikusi egin beharko da zer erabaki hartzen diren sailkapenei buruz, hau da, zein igotzen diren eta zein jaisten diren jokatu den azken jardunaldiaren arabera, edota dena bertan behera geratzen den, eta hurrengo denboraldia hutsetik hasten den».

Zenbait kirol probei ere eragin diete koronabirusa ez hedatzeko hartutako neurriak. Larraul-Hernio-Larraul lasterketa igandean egitekoa zen, eta bertan 200 korrikalarik parte hartu behar zuten, hau da, izen-ematea beteta zuten beste behin. Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakiaren ondoren, bertan behera utzi



Usabal kiroldegia itxita. I.G.L.

behar izan dute. Antolakuntzatik azaldu dutenez, aurtun berriro antolatzeko asmoa dute, baina oraingoz ez dute datarik. «Ikusi egin beharko da zenbat irauten duen kontu honek, eta normalitatez itzultzen garenean, hitz egin beharko dugu noiz egin dezakegun», azaldu du Andres Aristi antolakuntzako kideak. Beraz, izen-ematearen dirua ez dute itzuli, eta beraien webgunean zein komunikabideen bitartez jakinaraziko dute noiz egingo duten berriro.

Asteburuan egitekoak ziren beste bi kirol ekitaldi nagusi ere

bertan behera geratu ziren. Horietako bat Aiztondo Klasikoa txirrindularitza proba izan da, afizionatu mailakoa, eta Espainiako Koparako baliagarria. Egin ez den beste kirol proba Gipuzkoako Batel Ligako jardunaldia izan da, TAK klubak antolatutakoa eta Oria ibaian egitekoa zena.

Kirol azpiegitura guztiak itxita daude gutxienez martxoaren 29a arte. Tolosako Usabal kiroldegian, esaterako, mantenu lanak egiten ariko dira, berriro irekitzerakoan azpiegiturak behar bezala izateko.



«Bi edo bost egun iraun dezake birus horrek inguruko altzarietan»

AITZIBER ALZAGA FAMILIA MEDIKUA

Koronabirusaren hedapena gizartearen esku dago hein handi batean, eta «beingoagatik helduak izan behar dugula», dio Alzaga familia medikuak. Txinan bi hilabete behar izan dituzte birusaren hedapena jaisten hasteko.

Eneritz Maiz Etxarri Ibarra

Koronabirusaren gaitzak mundua aztoratu duen honetan, Aitziber Alzaga familia medikua-rengana jo du TOLOSALDEKO ATARIA-k informazio eske.

Tolosaldeia salbu dago, momentuz, koronabirusetik.

Momentuz Tolosaldea Koronabirusetik salbu badago, lehen momentutik hartu diren neurriak egokiak izan direlako izan da. Batez ere, hasiera-hasieratik saiatu garelako, positibo izan zitezkeenetatik atzematen, eta haren kontaktu guztiak atzeman eta isolamenduan sartzen. Egia da batzuek eskuetatik ihes egin dute eta hor daude Madril edota Txagorritxuko kasuak; gaitzari buelta eman ezinik dabilta. Baina hasiera-hasieratik hartu diren neu-

rriak gehiegizkoak iruditu arren, eraginkorrak izan dira, eta Gipuzkoan ematen du funtzionatu dela, oso kasu gutxi ditugulako.

Lehenik eta behin zein aholku jarraitu behar dira ez kutsatzeko, eta ez zabaltzeko?

Susmoa badugu positiboa eman duen kutsaturen batekin kontaktua izan dugula, isolamenduan sartzea, eta jarraitu beharreko protokoloak betetzea izango litzaiteke. Jende pilaketak ekidin, bi metroko distantzia mantendu, eta musu eta besarkadak gertukoekin ekiditea dagokigu arnas jariakinetatik transmititzen delako birus hau. Gero, higie-neurriak areagotu beharko ditugu. Doministiku bat egin behar dugunean beste aldera begira edo ukondora egin. Eskuen garbiketa, behin eta berri, esan den moduan, oso zo-

rrotza izatea. Bi edo bost egun iraun dezake birus horrek inguruan ditugun altzarietan. Altzari horiek ukitzen baditugu, eta gero eskuak aurpegira edo begietara eramaten baditugu, hor transmisio bide bat dago, eta hori mozteko, eskuen higie-neak oso-oso eskurpulosoa izan behar du. Pertsona ahulekin kontaktu esturik ez izatea da, bestea.

Beldurtu beharko genuke?

Beldurtu-beldurtu, ez, gaitza aparteko ezer ez delako; gripearen antzeko zerbait da, eta sintomak ere antzekoak ditu. Gaixotzen direnen %90a sendatu egingen da. Horiekin ez daukagu inolako arazorik. Baina dakiguna da, gaixotzen den %10a larriki gaixotzen dela.

Hor dago gakoak. Larriki gaixotzen direnekin dago gakoak. Gure osasun sarean neurri batera iritsi gaitezke. Kasuak, bat-batean, bider 10 edo bider 100 egingen bazaizkigu, larriki gaixotzen diren %10 horiek izugarri izango dira. Eta horiei denei beharrezko laguntza emateko beharbada ez dugu gaitasunik izango. Kaos sentazioa hortik dator, eta ikusi dugu esponenzialki arin ari dela igotzen, hau da, gaixoen kurba mendi punta zorrotz baten tankera ari da hartzen. Horrek satura-

zio batera eramaten gaitu, sistema sanitarioaren saturazio batera. Nik uste dut alarmistak izaten saiatu direla edo garelako gauza guztiak itxiz, kasuak gutxitzen joan daitezkeen. Desagertu ez dira egingo, eta esaten dute punta hemendik bi hilabetera izango dugula, Txinan horrela gertatu delako. Bertan orain ari dira goitik behera ikusten. Mendi zorrotz horren punta lehen kasua agertu eta handik bi hilabetera gertatzen da.

Denbora dugu aurretik, beraz.

Horixe da. Agertu behar bada agertu daitezela, baina mendi zorrotza izan beharrean, izan dadila muino lau bat. Kasu gutxi, denbora luzean zehar. Horrela gure osasun sistemari denbora ematen dio, gainezka ez egiteko, eta denbora ematen digu txertoak gertatu behar badira agertzeko edo tratamendu berriak esperimentatzen ari badira, haiek agertzeko. Nik uste dut alarmismo hau sortu dela, ez gaitzak, berez, denok hilko gaituelako, baizik eta, %10 larri horiei behar duten babes eman ahal izateko.

Guzti honek gizarte osoaren ekarpena eta elkarlana behar ditu.

Nik uste dut beingoagatik helduak izan behar dugula. Gure zaharrak uste dut ohitu zirela hone-lako drametan aurrera ateratzen, gerrateak edota goseteak zirela eta. Gu ongizate gizarte batean hezi gara, eta behin ere ez dugu gure buruaz aparte gizartearen gainontzekoekiko behar hori ikusi. Denok gizartearen parte garela sentitze hori. Denok izan behar gara koherenteak eta aipatutako neurriekin denok parte hartu behar dugu; Arduraren parte dugu eta horregatik helduak izan behar gara. Pertsonatik pertsonara kutsatzen da, eta gaitzak aurrera egin ez dezan eta ahalik eta azkarren moztu dezagun.

Zer da birus hau eta zeinezagarrri ditu?

Animalietatik datorren birus bat da. Koronabirus familia ezberdinak daude. Lau taldetan banatzen dira, eta batzuekin harremana dugu. Gure artean daude, eta katarrotxo bat ematen digute beretik gabe. Birus hau erreserbatzen dutenak animaliak dira, eta batez ere saguzarrak. Tarteantarteant, gizakiekin harremanik izan ez duen edo mutazio bat izan duen koronabirus berri bat animalietatik gizakiarengana pasatzen da. Gizakiarentzat berria da, eta ez da sekula kontaktuan egon birus horrekin. Gure immunitate sistemak ez dauka memoriarik horri aurre egiteko. Orduan, derigor gaixotzen gara.

Kutsatuz gero, zein sintoma izango ditu gaixoak?

Gripe baten berdina. Hasiera batean eztula ematen du, %80ean, eta baita sukarra ere. Gero, %30ek, arnas larritasuna sumatzen du. Biriketan inflamazio bat sortzen du, eta era berezi bateko pneumonia ematen du. Hori da larriki gaixotzen gaituena batez ere. Hiru sintoma horiek dira nagusi, baina aparte eman dezake gorputz txarra, muskuluetakoa mina, diarrearen bat,... baina %10a baino gutxiago dira sintoma horiek.

Zeregin behar du sintoma horiek dituela uste duenak?

Hasieran irizpide epidemiologikoak erabiltzen genituen, hau da, egon zaren txinan edo italiarrek kontaktuan... Bidaiaren bat, Gasteizen edo Madrilan. Gripe hutsa den esateko edo beste zerbait izan daitekeen esateko. Momentuz berdin jarraitzen dugu. Baina pentsatzen badugu kontakturik izan dugula susmagarria den norbaitekin, lehenengo gauza etxean geratzea da, larri ez bagaude behintzat. Gripe baten antzeko sintomak baditugu etxean gertuko gara. Horretarako jarri den telefono zenbakira deituko da: 900 20 30 50era. Hor galdera mordo bat egingo dizkiote, eta hala balitz, erizain talde bat bere etxera joango da. Ahotik lagin bat hartuko diote analizatu ahal izateko.

Baina gauza berdina egingo dugu baita kontaktua izan dugula uste eta sintomarik ez dugunean ere. Zergatik? Badagoelako kutsatu denetik sintomak agertzera bi edo bost egun behar dituen jendea, eta kutsatzen jarraitu dezakegu. Etxean gela batean sartu, eta telefono zenbakira deitu beharko genuke.

Ez gara ambulatoriora joango?

Ez. Gripea ere azken arrastoak ematen gure artean daukagu. Momentu honetako helburua kasu positibo batek ez ihes egitea da. Hori izango delako zabalduko dituen.

Osakidetza prest dago etorri daitekeenari aurre egiteko?

Nikesango nuke baietz, orain arte esan dizkiguten neurriak hartzen baditugu. Hau da, lehen aipatu dudana muino txiki hori lortzen badugu egitea; kasu gutxi denboran zehar. Guk ere gure unitate oso mugatuak dauzkagu. Neurri hauek esajeratuak iruditu bazaizkigu ere, horri begira doaz, osasun sistema ez betetze aldera. Prestatuta gaude, bai, esaten dizkiguten gauzak ondo egingen baditugu. Bestela kaos bat gertatu daiteke, Italian edo Madrilan bezala, eta hori da ekidin nahi duguna.

Beharren aurrean, elkartasun keinuak ugaritzen ari dira

Adinekoei erosketak egin edota zaintza lanak egiteko prest dauden boluntario ugari daude herri guztietan

Iban Urdapilleta Alkizalete
Iñigo Terradillos Gaztañaga

Ez da inorentzat erraza epe mugagabe etxean konfinatuta geratu beharra, baina zailtasuna are eta handiagoa izan daiteke pertsona helduentzat edota behar bereziren bat dutenentzat. Horregatik, herri bakoitzean behar horiek identifikatzen ari dira, modu egokian erantzuteko, eta laguntza emateko prest dauden boluntarioen sarea ere handitzen ari da eskualdean.

Oro har, tamaina handiko herrietan udal gizarte zerbitzuetatik ari dira kudeatzen, eta tamaina txikiagoetan Uli, Saiaz eta Aiztondo mankomunitateetatik ari dira lanean. Behar handiena duten herritarren zerrenda osatzen ari dira, eta etxetik atera gabe egon behar duten egunetarako erosketak edota zaintza zerbitzuak nola egin ari dira zehazten. Era berean, telefono zenbakiak ere jarri dituzte herritarren eskura, zuzenean udaletxera edo gizarte zerbitzuetara deitu ahal izateko.

Udaleko zerbitzuen osagarri, herritar ugari ari da laguntzeko nahia azaltzen. Alegiako kasua litzateke horietako bat. Bertan, udaleko zenbakiarekin batera, telefono mugikor bat ere jarri

dute, Gaztetxekoekin elkarlanean, eta horretara deituta, erosketak egiten lagunduko diete adineko herritarrei. Boluntario moduan lagundu nahi dutenentzat komunikazioa@alegia.eus helbidea ere jarri dute eskura.

135 BOLUNTARIOKO SAREA

Tolosaren kasuan, iragan ostira-lean hasi zen lagun talde bat boluntario sare bat osatzeko beharraz hizketan. «Bakoitza bere kontaktuen bidez hasi ginen ideia zabaltzen», azaldu du Dani Lopez boluntario taldeko kideak. Horrela osatu dute 135 pertsonako taldea. «Denetarik dago taldean, eta baita profesionalak ere, hala nola, erizainak, farmazialariak, medikuak eta babes zibilean lan egindakoak». Euren helburua laguntzea da, baina, hori bai, «beti profesionalak gainbegiraturak». Eta hori argi utzi nahi dute, «kolaboratzea eta laguntza osagarria izatea» dela euren asmoa, «profesionalen zerbitzura, eta inondik inora gure kabuz eta heroiaarena eginenez». Momentuz, boluntarioak sailkatu dituzte, «lagundu behar denerako ondo funtzionatzeko».

Egin asmo dituzten edo egin ahalko dituzten laguntzen artean, adinekoei erosketak egitea, euren etxetara garbitzera joa-

tea, zaborrak ateratzea, txakur-rrak paseatzera irtetea, baserrietan isolatuta egon daitezkeinei bisitak egitea... aipatzen dituzte. «Azoka bertan behera geratu zela kontuan hartuta, pentsatu dugu baita ere, ondo legokeela udalak baserritarren produktuak erostea, ezingo dutelako saldu, eta horiek banatzea. Etxerik gabekoen kasuan, berriz, zentroak itxi dituzte, eta horiek ere laguntza beharko dute», adierazi du Lopezek.

Gurutze Gorriarekin harremanetan jarri dira, eta euren laguntza eskertu eta formazioa eman go dietela erantzun diete. Tolosako Udalaren kasuan, gizarte zerbitzuetatik antolatzea, eta boluntario sarea euren zerbitzura egotea da asmoa. Bada, ostiralean azaldu zuten udaletxean euren prestutasuna, baina, oraindik ez dute erantzunik jaso. «Egoera kudeatzen ari direla ulertzen dugu, baina, beste udaletxeetan boluntarioak eskatzen ari direla ikusten ari gara, beraz, ulergaitza ere egiten zaigu erantzunik ez jasotzea. Gu antolatuta gaude, beraz, udalaren esperoan gaude lanean hasteko, eta euren telefonoaren bitartez ez bada gure telefono zenbakia zabaldu beharrean egongo gara behar duen orok erabili dezan».



Adinekoei erosketak egiteko boluntario ugari ari dira prestutasuna azaltzen. I.T.

LAGUNTZA ETA INFORMAZIO TELEFONO ZENBAKIAK

Herriz herri

Abaltzisketa. 943 65 29 00.
Aduna. 943 69 25 71.
Albiztur. 943 65 44 26.
Alegia. 943 65 10 87 eta erosketetarako 606 797 135.
Alkiza. 943 69 39 30.
Altzo. 943 65 24 13.
Amasa-Villabona. 943 69 21 00.
Amezketza. 943 65 31 89.
Anoeta. 943 65 12 00.
Asteasu. 943 69 19 07.
Ballarain. 943 88 90 03 eta erosketetarako 669 02 53 30.
Belauntza. 943 67 43 66.
Berastegi. 943 68 30 00.
Berrobi. 943 68 32 94.
Bidania-Goiatz. 943 68 11 09.
Elduain. 943 38 31 21 eta arratsalde, 646 69 96 66.

Gaztelu. 943 67 44 44.
Hernialde. 943 65 44 94.
Ibarra. 943 67 11 38 eta gizarte@ibarra.eus
Ikaztegieta. 943 65 33 29 eta 688 63 57 75.
Irura. 943 69 13 33 eta alkatetza@irura.eus.
Larraul. 943 69 30 42.
Leaburu-Txarama. 943 67 59 31.
Lizartza. 943 67 07 00 eta 649 49 73 93.
Orendain. 943 65 40 64.
Orexa. 943 68 20 29.
Tolosa. 943 65 44 66 eta 943 69 74 60.
Zizurkil. 943 69 10 12 (1luzapena).

Informazio orokorra

Osakidetza. 900 20 30 50.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Joxe Peon Segares

(Olatz Peon Ormazabal alkatearen aita)



TOLOSAKO UDALA

TOLOSAN, 2020ko martxoaren 17an.



Jaxinta Izagirre
Irastorza

Martxoaren 13an hil zen 94 urte
zituela,

Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Anai-arrebak: Joxe Antonio (†) eta Bernarda Gorostegi (†),
Joxetxo (†), Maria (†) eta Joxe Sarasola (†), Joxe Mari eta Mari-
txu Mujika (†), Seberi eta Joxe Garmendia (†), Jesusa eta Joxe
Antonio Garmendia (†); ilobak, lehengusuak eta gainerako
ahaideak.

ZOAZ LIBRE HEGALDI LUZEAN!
MUXUAK!

TOLOSAN, 2020ko martxoaren 17an.



ASTEARTEA, 2020KO MARTXOAK 17
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



'Atarian' ere eragin du

TOLOSALDEKO ATARIA-n ere izan du eragina koronabirusak. Horrela, lantaldeko kideetako batzuk etxetik ari dira lanean.

Erredakzioa Tolosa

Koronabirusa dela eta, honen hedapena saihesteko protokoloa ezarri du ATARIAK. Osakidetzak eman dituen aholku orokorrak jarraituz, TOLOSALDEKO ATARIA-ko langileetako batzuk etxetik ari dira lanean eta lanerako ezinbesteko harremanetan aurrez aurreko topaketak ere saihestuko dira. Zaintza eta lana uztartzeko aukera eskaini ahal izateko hartu da erabakia, baita hedabideko funtzionamendua bermatzeko ere. Hala ere, unean uneko erabakiak hartuko dira etorkizunera begira.

Koronabirusari eta bestelako gaiet buruzko informazioa ematen jarraitzea eta ohiko argitalpenekin jarraitzea da ATARIA-ren asmo eta nahia, nahiz eta osasun krisi honek eragin handia izan duen aktualitate informatiboan.



Egoera normalitatera itzuli bitartean, erdi hutsik egongo da erredakzioa. J.A.

Era berean, webgunea eguneratzen ariko da une oro, ahal den neurrian. Irratian berriz, momentuz, euskal musika bakarrik entzungo da.

Osasun-larrialdi honek gizar-tean izan duen eraginaz jabeturik, eta egoera normalitatera

itzuli bitartean, eskualdeko herriarrentzako San Esteban auzoko bulegoa ixtea erabaki dugu. Bien bitartean, gurekin harremanetan jartzeko deitu 943 655 695 telefono zenbakira edo bidali mezua ataria@ataria.eus helbide elektronikora.

ASTEARTEA 17

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giroak onera egingo du pixkana. Goizean hodei-tapaki handia egongo da eta euri pixka bat ere izango dugu. Egurditik aurrera atertu eta ostar-tetxo batzuk ere zabalduko dira. Haizeak goizean iparraldetik joko du, ondoren norabide aldakorretik geratzeko. Tenperatura igo egingo da, maximoak 12-14 graduan geratuz.

Bihar. Giro eguzkitsua eta epela. Hego-haizeak tenperaturen gorakada handi xamarra ekarriko du. Maximoak 18-20 graduan errendituko dira. Zeruan

urdira nagusi izango da, nahiz eta, arratsalde partean bero-hodeiren bat garatuko. Hala ere, bero-hodei hauek ez dute ondorioz ekarriko.

ATARIA IRRATIA

Egun osoan. Euskal musika.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunkoa. J.M. Etxebeste Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.

TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larra-mendikalea, 6 behe 1. 943 67 5118.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Hemen
eta online iragarki
laburrak
.eus

iragarki
laburrak
.eus

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa



harpidedun izateak badu saria

ERRIGORA proiektuko 3 saski

Udaberriko kanpainarako egin zure eskaera. Otsailaren 27tik martxoaren 12ra. www.errigora.eus

- Ion Bordagarai Irastorza (Irura)
- Alaine Zubeldia Mujika (Anoeta)
- Ainhoa Aretxabaleta Aparicio (Tolosa)



ATARIA jarrikoda harremanetan.